

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2016ko maiatzaren 5ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **2015 Txostena:** Udal ordezkarietara bidaliko zaie. Ez badira oharrak helarazten Eskualdeko Bulegora, onetsizat joko da eta hurrengo Batzordean paperean eta enkuadernatuta emango da.
- **Etxeko hondakinen bilketa lehiaketa:** Ebaluaketa faserako egutegi edo bide orria aurkezten da.
- **Tamaina handiko hondakinen biltzeko lehiaketa:** Zerbitzu berria antolatzeko bilera, maiatzaren 23an, astelehena, 12:00etan, Eskualdeko Bulegoan.
- **Edukiontzien hornidura lehiaketa:** Udalei galdetegia bidaltzen zaie udalerrira bakoitzean argitu behar diren gaiekin: aldatu beharreko unitateak, tamainak, egutegia, bestelakoak eta iradokizunak: erantzun eta Eskualdeko Bulegora bidali behar dira.
- **Informazioak:** Garbiker: Batzordearekin bilera, Urduñako Garbigunea eta Arrankudiagako edukiontzia; Jardunaldi informatiboa: Bertako erakundeentzako ingurumen diru-laguntzen agindua: Energia eta isolamendu termikoari buruzko hitzaldi eskaintza.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Ekainaren 2an, osteguna, 8:30etatik 10:30etara.